

# ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 23

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

apirilak 28

## OPOSAKETAK

Lehenik eta behin, gure haserrea kaleratu nahi dugu, Partzuergoaren aldetik oposaketaren inguruko informazioa ematen ari den moduagatik. Gaur atera behar zen behin betiko zerrendaren atzerapena jakiteko, beraien atzetik ibili behar izan dugu, honez gain, atzo buletinean sorpresaz aurkitu genuen hurrengo LEParen deialdi argitalpena e.a. luze bat.

STEE-EILASetik uste dugu, hauek ez direla sindikatuak eta langileak informatuak edukitzeko moduak.

### 2008KO LEP

Dakizuenez, orain dela egun batzuk ziber bat bidali genizuen partzuergoak lan eskarmentua baloratzeko jasotako azken erabakiarekin. Honetan, jaso zituzten presioak direla eta, merituek metatu ahal izatearen berri eman genizuen. Erabaki honek hautagai guztien birbaremazioa suposatu du eta horregatik, behin betiko zerrendaren argitalpena atzeratu da.

Modu "extraofizial" batean jakin dugu maiatzaren 5erako edo 6rako argitaratzeko asmoa dutela, hala ere, data zehatza ezagutu bezain laster, jakinaraziko dizuegu.

Dena den, behin betiko zerrenda hauek atera ostean, 10 eguneko epe bat zabaltzen da non lehenengo bostehunak hurrengo dokumentazioa aurkeztu behar izango dute:

- o **Eskatutako tituluaren** fotokopia konpultsatua.
- o **EGA** edo 2. Perfilaren fotokopia konpultsatua
- o **NAN** fotokopia konpultsatua
- o **Ezintasunaren zertifikatua** %33ko edo gehiagokoa bada.
- o **Zinpeko Aitorpena** (inongo hezkuntza edo administrazio publikoren zerbitzutik baztertua ez izatearena eta ezgaitasunari edo bateraezintasunari buruzko kausa legalean nahasturik ez egotea).
- o **Mediku-ziurtagiria** (Hezkuntza alorreko langileen berezko eginkizunak normal betetzeko gaitasun psikiko eta fisikoa egiaztatuz). Zure lurraldeko **Estanko batean erositako ziurtagiri hau lurralde bereko mediku batek bete beharko du.**

# ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 23

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

apirilak 28

## 2009KO LEP

Atzo, apirilaren 27an EHAA-n argitaratu zen datorren urtean egingo den LEParen deialdia, honetan 235 plaza eskainiko dira.

Matrikula egiteko epea, **ekainaren 8an** hasten da eta hilabete horren **26an** bukatzen da. Ordaindu beharrekoa 13,55 € .

Deialdia aztertzen, aurtengoak izan diren modukoak izango direla ikusi dugu, aldaketa txiki batzuk salbu. Esaterako, azterketen ordena aldatu da eta honetan, atariko idatzizko froga izango da, horrez gain, programazioa eta balizko praktikoa egiteko ordubete gehiago egongo da.

Dena den, informazio gehiago behar izanez gero, lasaitasun osoz jarri harremanetan gurekin.